

# SARAUBE BERRIAK

Aiarako Udalaren aldizkaria #145  
2024ko MAIATZA / MAYO



## La Feria de San Isidro ofrecerá un amplio programa el 15 de mayo

El 15 de mayo tendrá lugar en Respaldiza una nueva edición de la ya emblemática Feria de San Isidro, una cita teñida de tradición y dedicada al sector primario -especialmente a la ganadería-, que ofrece también otros ingredientes para satisfacer los intereses de la población de Ayala. Así las cosas, a las 08:00 dará comienzo el VIII Concurso de Raza Pirenaica, que concluirá a las 13:30 con la entrega de premios.

De 09:00 a 13:00 el Centro Social acogerá San Isidro Txiki, para el público infantil de entre cuatro y doce años. La actividad valdrá 5 euros y el último día para realizar la inscripción será el 13 de mayo. A las 09:30 se abrirá el mercado de productos agroalimentarios y empezará la exhibición de ganado y maquinaria. A las 11:00, también en el Centro Social,

comenzará la exposición *Las redes de mujeres en comunidades rurales de El Salvador y Proyecto Ruraltxai*. A esa misma hora, Kalaka ofrecerá la posibilidad de disfrutar de sus juegos de madera y, a las 12:00, será el inicio de los talleres infantiles, la misa y la cata de queso de la mano de la quesería Soloitza -esto último también en el Centro Social-. A las 13:30 no faltará la cita con el deporte rural y a las 14:30 llegará el momento de la comida popular, cuyo precio será de 10 euros. La inscripción se debe realizar previamente en ayuntamiento.

Además, la tirada de bolos de San Isidro, que también goza de una larga trayectoria, se celebrará en la bolera de Quejana los días 17 de mayo, viernes, de 08:00 a 20:00 y el 19 del mismo mes, de 12:00 a 13:00.

*Maiatzaren 15ean ospatuko dute Arespalditzan San Isidro Azokaren edizio berria. Ohitura handiko hitzorduak protagonismo handia emango dio, nola ez, abeltzaintzari, baina bestelako jarduerak ere proposatuko ditu aiarrak ororentzat. Horrela, Arraza Pirenaikako VIII. Txapelketarekin batera, umeentzako jarduerak, egurrezko jolasak, gazta dastatzea, herri kirolen erakustaldia edo herri bazkaria ere egongo dira. Gainera, bola jokoaren txanda helduko da maiatzaren 17an eta 19an Kexaan.*


## Landa eremuko emakumeen lana aitortzen duen erakusketa egongo da ikusgai San Isidro Azokan

San Isidro egunean, landa eremuko emakumeei buruzko erakusketa egongo da Arespalditzako Zentro Sozialean 11:00etatik 14:00etara. Hain zuzen, El Salvadorreko Zacatecoluca herrian

dagoen emakumeentzako Lidergo Eskolari buruzkoa izango dira argazkiak. Han parte hartze politikoa sustatzen dute, baina baita indarkeria matxista prebenitu, detektatu eta salatzea ere.

*En San Isidro se instalará una exposición sobre mujeres de la Escuela de Liderazgo de Zacatecoluca, El Salvador, en el Centro Social de Respaldiza.*

# Ayala presenta alegaciones al proyecto eólico Ferosca I



El pasado mes de abril, el Ayuntamiento presentó ante el Gobierno Vasco alegaciones al proyecto eólico Ferosca I, que pretende construir tres molinos en el territorio de Ayala; dos en Pagonabarra, en el área de Respaldiza, y uno más en Luiaondo. Los motivos principales para ello es que la iniciativa no va a aportar ningún beneficio en el ámbito local. La producción energética se evacuará a la red general y no será para aprovechamiento del municipio. Además, no está clara la ubicación de los aerogeneradores, tampoco la de los caminos de acceso y, por si esto fuera poco, los aerogeneradores FI-04 y FI-06 no se corresponden con los del proyecto.

Aparte, hay una acumulación de centrales eólicas en la zona cuyo efecto no se considera. A ello hay que añadir que no hay ningún estudio del suelo, recursos hídricos, fauna, vegetación, emisiones acústicas, mediciones de viento... El análisis está lleno de contradicciones, errores y ausencias. En general, afecta a la sostenibilidad de los pueblos al ir en contra de las señas de identidad del medio rural y la conservación del patrimonio natural. Los impactos visuales alcanzan amplias zonas del municipio y su efecto paisajístico daría lugar a pérdida de valor patrimonial en las zonas más próximas a la central eólica. Finalmente, el PTS hoy en día en tramitación, y al cual el municipio hizo alegaciones el año pasado, no plantea ninguna localización en la zona afectada por Ferosca I. A las alegaciones se han adherido 13 Juntas Administrativas.

*Pasa den apirilean, Udalak Ferosca I proiektu eolikoari alegazioak aurkeztu zituen Eusko Jaurlaritzan. Egitasmo horrek hiru aerosorgailu eraiki nahi ditu Aiaran; bi Arespalditzako eremua den Pagonabarran eta bat Luiaondon. Proiektua errefusatzeko Udalak argudiatu du ez diola inolako onurarik ekartzen herriari. Alegia, energia-ekoizpena sare orokorrera bideratuko da eta ez da hemen geratuko. Gainera, ez dago argi aerosorgailuen kokapena, ezta sartzeko bideenak ere. Bestalde, FI-04 eta FI-06 aerosorgailuak ez datoz bat proiektukoekin. Horri gehitu behar zaio zentral eolikoaren proiektuen metaketa dagoela eta horren eragina ez dela kontuan hartu. Halaber, ez dago lurzorua, baliabide hidrikoen, faunaren, landarearen, emisio akustikoen, haizearen neurketen... azterketarik. Oro har, udalerrien iraunkortasunari eragiten dio, eta landa-ingurunearen nortasun-ezaugarrien eta natura-ondarearen kontserbazioaren aurka egiten du. Ikusmen-inpaktuak udalerriko esparru zabaletara iristen dira eta paisaia-inpaktuak ondare-balioa galtzea ekarriko luke eremu hurbiletan. Azkenik, gaur egun izapidetzen ari den LPSak ez du inolako kokapenik jasotzen eolikoentzat Ferosca I en eremuan. Hamahiru Administrazio Batzar batu dira alegazioetara.*

# Súmate a los Hogares Verdes



La Cuadrilla y el Ayuntamiento de Ayala quieren animar a la ciudadanía a unirse a la iniciativa Hogares Verdes. El objetivo de esta propuesta es que en la cuadrilla veinticinco viviendas se adhieran y se formen en hábitos de consumo más sostenibles y sirvan de motor para el resto de la sociedad. Con ese propósito, recibirán formación y asesoramiento personalizado de cara al ahorro y el control en el consumo de agua y luz, el reciclaje, la realización de compras más ecológicas... Aprenderán a interpretar para ello, por ejemplo, sus propias facturas eléctricas. Han habilitado el número de teléfono 693 843 652 para que las familias interesadas se inscriban antes del 14 de mayo. En la página web [www.fundacionvital.eus](http://www.fundacionvital.eus) también es posible hacerlo.

*Etxe Berdeak programan parte hartzeko deia luzatu dute Aiarako Udalak eta Kuadrillak. Helburua de tokiko 25 etxebizitza batzea egitasmora eta ohitura jasangarriagoak eta ekologikoak ezartzea euren bizitzetan eta, horrela, gizarte osora zabaltzea. Horretarako banakako trebakuntza eta aholkularitza jasoko dute ura edo elektrizitatearen kontsumoa murrizteko -fakturak ondo ulertuta-, bidezkoagoak diren erosketak egiteko edo hondakinak hobeto sailkatu eta birziklatzeko. Izen-ematea 693 843 652 telefonoan edo [www.fundacionvital.eus](http://www.fundacionvital.eus) webgunean egin beharra dago, maiatzaren 14an, beranduenez.*

## Aiarandreen Taupadak, batukada eta eremu segurua emakumeentzat



Aiarandreen Taupadak batukada duela bi urte sortu zuten eta emakumeentzako toki segurua da. Parte hartzaileak saiatzen dira kide guztien ahotsak entzuten eta denak animatzen, bereziki berriak. "Sartzen diren partaide berriak laguntzen ditugu eta jakinarazten diegu uste baino hobeto egingo dutela. Tamalez, oro har, gizartean emakumeok kontrako mezua jasotzen dugu, ez garelak gai zenbait gauza gure kabuz egiteko. Finean, segurtasuna eta autoestimua hobetzeko balio du", adierazi dute.

Taldearen ibilbidea 2022an hasi zen Aiarako Kuadrillaren bultzadari esker. Hiru hilabeteko tailerra proposatu zuen erakundeak, emakume interesdunek ezagutu zezaten batukada feminista baten funtzionamendua. Erantzuna oso arrakastatsua izan zen eta urte berean luzatu zuten trebakuntza. Horren ondoren, bere kabuz funtzionatzen du Aiarandreen Taupadak batukadak eta hainbat tokitan jo du dagoeneko; Urduña, Laudio, Aiara, Artziniega, Okondo, Trapaga, Sopusuerta... Elkarte autonomo gisa funtzionatzen du eta nahi duenak izena eman dezake [aiarandreentaupadak@gmail.com](mailto:aiarandreentaupadak@gmail.com) helbidera idatzita.

*La batucada Aiarandreen Taupadak es un espacio seguro creado por las propias mujeres de la Cuadrilla de Ayala y que trata de dar voz a todas sus integrantes. "A las nuevas participantes las ayudamos y les transmitimos que lo harán mejor de lo que creen. Por desgracia, en general, en la sociedad las mujeres solemos recibir el mensaje opuesto, que no somos capaces de hacer las cosas por nosotras mismas", han aclarado en el grupo. La iniciativa surgió en 2022 por el impulso de la Cuadrilla, que ofreció una formación de tres meses para conocer una batucada feminista desde dentro. Tras una exitosa acogida, el curso se prolongó y actualmente Aiarandreen Taupadak es una asociación que funciona autónomamente y que ya ha ofrecido numerosas actuaciones: Laudio, Urduña, Ayala, Artziniega, Okondo, Trápaga, Sopusuerta... Las mujeres interesadas pueden ponerse en contacto con este proyecto a través del correo [aiarandreentaupadak@gmail.com](mailto:aiarandreentaupadak@gmail.com).*

## Agenda 2030 Ikastolan



Etxaurren Ikastolako gazteek energia-aren afera landu dute amaitzeaz dagoen ikasturte honetan eta egindako hausnarketari esker, kontsumoa murrizteko dekalogo bat sortu dute. Hori gizarteratzeko argien itzalketa antolatu zuten apirilaren 22an Luiaondoko Otueta Gizarte Etxearen aurrean, Ama Lurraren Nazioarteko Egunean, hain zuzen. Ekintza horrekin gizarte jasangarriagoa aldarrikatu zuten eta asmoa da hurrengo urteetan ere egitea. Gainera, euren mezua zabaltzeko bi data izango dituzte. Hasteko, Amurrión batuko den Eskola Foroa, Aiarako Kuadrillako beste ikastetxeekin. Gero, maiatzaren 28an Udal Foroa izango da eta, alkatearekin eta zinegotziekin partekatuko dituzte izandako jarduerak eta proposamenak udalerrira hobetzeko energia arloan.

*El alumnado de Etxaurren Ikastola ha trabajado este curso el ámbito de la energía en el contexto de la Agenda 2030. Con el trabajo realizado han elaborado un decálogo para conseguir una sociedad más sostenible y el 22 de abril reivindicaron ese mensaje en el apagón que llevaron a cabo frente al Centro Social Otueta.*

## Euskara ikasteko bekak jaso dituzte 21 aiararrek eta matrikulan ordaindutakoa itzuli die Udalak

Aiarako Udalak, urtero bezala, aurreko ikasturtean euskaltegietan ikasi zuten aiararrentzako bekak eman ditu berriki. Eskaera aurkeztu zuten 21 ikasleek jaso dituzte, baldintzak bete baitituzte, eta euskaltegiari ordaindu zioten %100 itzuli

zaie kasu guztietan. Izan ere, Udalak horretara bideratzen duen aurrekontua ez du gainditu.

2023-2024 ikasturteko beka eskaerak urrian aurkeztuko dira.

*El Ayuntamiento de Ayala ha concedido las becas por estudiar euskera a 21 personas y, gracias a ello, se les ha devuelto el importe que pagaron por matricularse en un centro homologado.*

## Euskarazko jarduerak



Familiaguztientzako ekintzak egongo dira Aiaran hurrengo egunetan. Maiatzaren 15ean 17:30ean Arespalditzako Zentro Sozialean orientazio jarduera proposatuko du Gurasolagun ekimenak. Altxorraren bila aterako dira lau urtetik gorakoak eta izena emateko 607 673 744 telefonora deitu behar da. Maiatzaren 19an Igande Arratsaldeak Familian-en edizio berria egongo da Arespalditzan. 17:00etan Antxo eta Pantxa pailazoen *Eman bizia* ikuskizunaren ordua izango da, eta gero askaria eta eskulan tailerrak antolatuko ditu 24 Elkarteak.

## Agenda

11

### TAILERRA

**Hennaz margotzeko**

*Luiaondo, Gaztelekua, 18:00*

15

### FERIA DE SAN ISIDRO

**Mercado, concurso, cata de queso, comida popular...**

*Respaldiza, 08:00*

17

### BOLA JOKOA

**San Isidro**

*Kexaa, bolatokia, 08:00*

18

### KOPAKO FINALA

**Gazteentzako jarduera**

*Luiaondo, Gaztelekua, 18:00*

18-19

### KANPALDIA

#### FAMILIENTZAT

**Aiarateka elkarteak antolatuta**

*Llanteno, Andra Mari Zuriko basilizaren zelaia*

19

### TIRADA DE BOLOS

**San Isidro**

*Quejana, bolatoki, 12:00*

19

### IGANDE ARRATSALDEAK

#### FAMILIAN

**Antxo eta Pantxaren ikuskizuna, askaria eta eskulanak**

*Arespalditza, 17:00*

## Berbalagun egin zaituzte

Euskara badakizu baina ez baduzu topatzen lagunik edota unerik hitz egiteko, jakin dezazun parte hartu dezakezula Berbalagun egitasmoan. Izena emateko edo informazio gehiago eskatzeko, 607 673 744 telefono zenbakira deitzeko aukera dago. Ekimenaren bidez propio sortzen diren taldeetara batu eta elkarrizketak izatea eskura dago, eta beste inizatiba mota batzuk ere. Adibidez, Gurasolagunek familia osorako ekintzak proposatzen ditu, baina badaude ere kirolari lotutakoak edota online bidezko hitzorduak. Doakoa da, gainera.

## Entérate por WhatsApp

El Ayuntamiento de Ayala recuerda que, además de la revista Saraube o de la propia página web, dispone de un medio en el que informarse de las actividades y convocatorias que tienen lugar en el municipio, concretamente, el grupo de difusión de la red social WhatsApp. Su teléfono es el 615 788 146 y su finalidad es hacer llegar a la ciudadanía tanto las citas que genera la institución local, como las que organiza el tejido asociativo. Para inscribirse, basta con enviar un mensaje con la palabra *alta*, y para dejar de recibir el servicio, escribir la palabra *baja*.

## Informa zaituzte WhatsApp bidez

Aiarako Udalak gogorarazi du, Saraube aldizkariak edo webguneaz gain, udalerrian egiten diren jardueren eta deialdien berri emateko beste bitarteko bat baduela ere, zehazki, WhatsApp sare sozialaren hedapen taldea. Bere telefonoa zenbakia 615 788 146 da, eta helburua da herritarrei helaraztea bai tokiko erakundeak sortzen dituen hitzorduak, zein elkarten sareak antolatzen dituenak. Izena emateko, nahikoa da *alta* hitza duen mezu bat bidaltzea eta, aldiz, zerbitzua jasotzeari uzteko, *baja* hitza idaztea nahikoa da.



### WhatsApp municipal

**Si quieres informarte de la actualidad de Aiara, súmate a las más de 290 personas que ya están apuntadas en el número de WhatsApp 615 788 146.**